



**ASFEDEBIK**

## **bat egin du NAZIO BATUEN MUNDUKO ITUNAREKIN**

---

Bizkaiko Kirol Federakundeen Elkarteak -ASFEDEBI- bere Gizarte Erantzukizun Globalari ekitea erabaki du eta Munduko Itunaren hamar oinarriekiko konpromisoa hartu du.

Elkartearen ustez EGE-KGE -Enpresen/Korporazioen Gizarte Erantzukizuna- bere jardueren osagai estrategikoa dira eta adierazi du prest dagoela iraunkortasunezko politika horiek Milurtekoko Helburuen lorpenera iristeko ahaleginarekin lotzeko, hau da, Enpresen Gizarte Erantzukizunerako Europako Aliantzak planteatu duen ildotik.

**Atxikipen hau aitzindaria da kirolaren arloan nazioarte mailan;** Elkarteak bat egin du Itunarekin korporazioaren herritartasun egokia sustatzeko giza eskubideen, lan arauen, ingurumenaren eta ustelkeriaren aurkako borrokaren esparruetan.

### **MUNDUKO ITUNA edo GLOBAL COMPACT**

Nazio Batuek 2000 urtean abian jarri zuten Munduko Ituna nazioarteko ekimena boluntarioa da eta, izatez, konpromiso etikoa da. Itunak enpresa eta izakietan garapen iraunkorrean lagunduko duen eta aldi berean korporazioaren hiritartasun egokia sustatuko duen Korporazioen Gizarte Erantzukizunaren -KGE- kultura sustatzeko lan-eremua ezartzen du.

Xedea herri guztietako enpresa eta izakien konpromisoa lortzea da, hain zuzen ere Giza Eskubideen Munduko Aldarrikapenaren, Lanaren Nazioarteko Antolakuntzaren Aldarrikapenaren, Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Aldarrikapenaren eta Ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioaren emaitza diren hamar oinarri unibertsalak onartzeko eta horiek laguntzeko eta aldarrikatzeko.

Herritartasun korporatibo globalaren sorkuntzak aukera ematen du negozio-interesak eta gizartearen baloreak eta eskariak bateragarri bihurtzeko, eta gauza bera egiteko NBE, arlokako nazioarteko antolakuntza, sindikatu eta GKEen proiektuekin.

Itunari atxikitzeak esan nahi du sinatzen duten izaki horiek konpromisoa hartzen dutela euren kudeaketa eta eguneroko jardueretan hamar oinarriak ezartzeko eta, publizitatez eta gardentasunez, prozesu

horretan egin dituzten aurrerakuntzen berri emateko urtero Nazio Batuei eta, orokorrean, gizarteari.

## ❖ <sup>1</sup>MUNDUKO ITUNAREN oinarri nagusiak:

### **GIZA ESKUBIDEAK**

1.- Enpresa/izakiek oinarrizkoak diren giza eskubideen defentsan lagundu behar dute eta nazioarte mailan aintzatetsita dauden eskubide horiek babestu eta zaindu behar dituzte euren eragin-esparruetan.

2.- Enpresa/izakiek bermatu egin behar dute euren enpresek ez dutela giza eskubideak hausten laguntzen.

### **LAN ESKUBIDEAK**

3.- Enpresa/izakiek afiliazio askatasunean eta talde negoziatioaren eskubidearen aintzatespen eragingarrian lagundu behar dute.

4.- Enpresa/izakiek lagundu egin behar dute nahitaezko lan edo bortxatuz egin behar izaten den lan mota guztiak ezabatzen.

5.- Enpresa/izakiek bat egin behar dute umeen lanaren ezabaketarekin.

6.- Enpresa/izakiek enplegu eta okupazioko bereizkeriazko praktikak ezabatzen lagundu behar dute.

### **INGURUMENENKO ESKUBIDEAK**

7.- Enpresa/izakiek beti ingurumenaren alde egingo duen aurrearretazko ikuspegia izan behar dute.

8.- Enpresa/izakiek ingurumeneko erantzukizun handiagoa sustatuzeko ekimenak bultzatu behar dituzte.

9.- Enpresa/izakiek ingurumena begirunez zaintzen duten teknologien garapena eta zabalkuntza bideratu behar dute.

### **USTELKERIAREN aurkako BORROKA**

10.- Enpresa/izakiek era guztietako ustelkeriaren aurka egin behar dute lan, baita estortsioaren eta eroskeriaren aurka ere.

---

<sup>1</sup> 2000ko ekainaren 26an Kofi Annan-ek Munduko Foro Ekonomikoan ofizial bihurtu zuen mundu mailako 1.300 ekintzale eta korporaziorik garrantzitsuenetako eskuordek sinatuta zuten akordioa. Ezarritako helburua ausarta eta bikaina zen: - Munduko ekonomia benetan gauza iraunkorra izatea lortzea, abiaburu moduan funtsezko hamar oinarriak aplikatuz-.

❖ <sup>2</sup>MILURTEKOKO helburuak:

1. Pobrezia gorria eta gosea errotik desagertaraztea.
2. Lehen hezkuntza unibertsala erdiestea.
3. Generoen arteko berdintasuna eta emakumeen botere-hartzea sustatzera.
4. Umeen heriotza-tasa murriztea.
5. Amen osasuna hobetzea.
6. GIB/HIESari, paludismori eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea.
7. Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea.
8. Garapenerako munduko itun bat sustatzea.

---

<sup>2</sup> 2000 urteko irailean New York hirian egin zen milurtekoko gailurrean NBE<sup>n</sup> historian osoan egon den estatu eta gobernuetako buruen presentziari altuena gertatu zen. NBEko kideak diren herriek berretsi egin zuten mundu baketsuagoa, oparoagoa eta doiagoa eraikitzeko euren konpromisoa, hau da, askatasuna, berdintasuna, solidaritatea, tolerantzia, naturarekiko begirunea eta humanitatearen destinoarekiko erantzukizunaren baloreei lehentasun osoa emanaz.

---

Sar zaituz ondoko esteka hauetan eta MUNDUKO ITUNA - GLOBAL COMPACTekiko konpromisoa hartu duen euskal herritar bihurtuko zara.

**Estekak:**

[www.pactomundial.org](http://www.pactomundial.org)

[www.unglobalcompact.org](http://www.unglobalcompact.org)

---

